

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joanito Dorronsoro Goikoetxea

*Zumaja,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Ataungo San Gregorio auzoan jaio zen, eta bertan bizi izan zen 11 urte bete zituen arte. Saturrarango seminarioan lehenengo, eta Donostiakoan gero, burutu zituen apaiz ikasketak. Apaiz izendatu zutelarik, bost urtez aritu zen Gaintzan apaiz lanetan, eta Itziarren urtebete igaro ondoren, Zumaiarako bidea hartu behar izan zuen. Apaizgintza eta fundizioko lanak uztartuaz jardun zuen denbora batez, harik eta apaiz izateari utzi zion arte. Herri mugimenduaren sortzaile eta bultzatzailea izan zen, ikastolen mugimenduak ere bete-bete harrapatu zuen, eta bera izan zen lehenengoetarikoa hezkuntzan bertsolaritza txertatzen. Bertsolaritza munduan Joanitok eginiko ekarpenak asko dira: 'Bertsolaritzaren Historia' sailkatua osatu eta 'Bertso doinutegia' egitasmo ikaragarria zedarritu zituen, besteak beste.

Zintak

ZUM-105

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gallastegi, Maddi
- **Data:** 2012-12-05
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

ZUM-106

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gallastegi, Maddi
- **Data:** 2012-12-05
- **Iraupena:** 47 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Ataungo San Gregorio auzoa; umetatik elizari lotua

- **Erref:** ZUM-105/002
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:03:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1936an jaio zen Ataunen, San Gregorio auzoan. Auzoa oso inportantea zen eurentzat, bertan zutelako bizitzeko behar zuten guztia: eskola, lagunak... Denetarik zegoen auzoan bertan. Bederatzi senide ziren, bera erdikoa. Euren etxea elizari itsatsita zegoen eta euren ganbara elizaren sakristia zen. Beraz, umetatik elizari oso lotua egon da.

2. Umetako bizimodua San Gregorio auzoan

- **Erref:** ZUM-105/003
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:03:38. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Gurasoak baserrikoak izan arren, eurak kalekoak ziren. Orduan oso garrantzitsua izaten zen menditik sutarako egurra ekartzea. Ahuntzen bat ere izaten zuten. Eskolara joan aurretik hura larrera eraman behar. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren eskolan. Maisua bertakoa zuten. Umetako jolasak; udaran errekan.

3. Umetako jolasak: pilotan, harrika, txori habia bila

- **Erref:** ZUM-105/004
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Umetan neskek eta mutilek jolas desberdinak egiten zituzten. Mutilak gehienbat frontoian pilotan. "Txintxinean", egur zorrotzak lurrera botaz egiten zuten jolasa. Borrokan. Harrika. Txori habiak bilatzen ere ibiltzen ziren.

4. Elikagaiak trukean

- **Erref:** ZUM-105/005
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:06:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Fruta-lapurreta ohikoa izaten zen. Denda ere bazuten auzoan, baina orduan erosi gutxi egiten zen, trukean izaten zen dena. Kalekoak izan arren, txerria eta oiloak izaten zituzten.

5. Osabaren eraginez, seminaria

- **Erref:** ZUM-105/006
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Familian hainbat apaiz zituen. Osabaren eraginez, hamaika urterekin Saturrarango seminaria joan zen. Sei lagun joan ziren urte hartan Ataundik. Parrokoaren maleta hartuta nola joan zen kontatzen du. Koltxoia ere beraiek eramane behar izaten zuten. Goierriatik autobus bat joan omen zen beteta.

6. Saturrarango seminarioan ohitzea kosta hasieran

- **Erref:** ZUM-105/007
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:11:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Saturrarango seminaria joan zenean, kosta egin zitzaion ohitzea hasieran, han diziplina zorrotza jarraitu beharra zegoelako. Ikasteaz gain, pilotan, futbolean edo hondartzan ibiltzeko aukera izaten zuten. Futbol txapelketak ere egiten zituzten. Oroitzapen onak ditu. Sei urte egin zituen han.

7. Saturrarango seminarioan sei urte

- **Erref:** ZUM-105/008
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:11:03. **Bukatu:** 00:13:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Saturrarango seminarioko egunerokoa nolakoa zen. Bera seminarioan hasi zen urtean Gipuzkoako (eta inguruko) 92 mutiko hasi omen ziren batera. Hasieran

Gasteizen zegoen gotzain bakarra eta hiru urte egindakoan hango seminariora joaten ziren denak. Baina euren sasoian erabaki zuten Gipuzkoan eta Bizkaian ere gotzainak jartzea, euren seminarioekin. Donostian seminarioa bukatu gabe zegoen eta horregatik egin zituzten eurak sei urte Saturraranen.

8. Saturrarango seminarioko bizimodua

- **Erref:** ZUM-105/009
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:16:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Saturrarango seminarioko eguneroko bizimodua. Isiltasuna izaten zen nagusi. Bazkalondoan kirolerako tartea izaten zuten. Gero berriz klaseak. Iluntzean meza eta arrosarioa. Asko kantatzen zuten. Igandetan denbora gehiago izaten zuten libre. Kultur-ekitaldiak ere izaten zituzten: pelikula edo antzerkiren bat, korua, kontzerturen bat...</p>

9. Andoni Basterretxea apaiza, euskal kanten bultzatzaile

- **Erref:** ZUM-105/010
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:16:02. **Bukatu:** 00:17:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Saturrarango seminariotik mendi aldera irteerak ere egiten zituzten. Andoni Basterretxea irakaslearen oroitzapen oso onak ditu: pedagogo oso ona, naturazalea, euskal kanten bultzatzailea... Gipuzkoan euskal kantuen zaletasuna hari esker sortu zela uste du, eurak han ikasi eta gero lagunaren artean zabaltzen zituztelako. `Boga, boga´ izeneko kantu-liburua ere kaleratu zuten gero.

10. Saturrarango seminariotik Donostiakora kontraste handia

- **Erref:** ZUM-105/011
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:17:44. **Bukatu:** 00:19:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Seminarioko lagunak urtero elkartzen omen dira eta denek Saturrarango oroitzapen ona dute: pedagogia ona, irekia, naturarekin harremanetan... Donostiako seminariora joan zirenean, kontrastea handia izan zen. Pedagogia

aldetik ere, atzerakoiagoa zen hangoa. Politikak ere eragina izan zuen eta Francoren aldeko irakasleak jarri zituzten. Beste sei urte egin zituen han eta bertan apaiztu zen.

11. Apaizen ezkutuan merienda jan zuten baserri batean

- **Erref:** ZUM-105/012
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:19:46. **Bukatu:** 00:21:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Saturrarango seminariotik Galdonamendi aldera joan ziren batean, baserri batera joan eta merienda jan zuten ezkutuan. Baina apaizek jakin egin zuten kontua eta sekulako sermoia bota zieten.

12. Seminarioan jatekoa urri

- **Erref:** ZUM-105/013
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:21:54. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Seminarioan ez zuten ondo jaten, gose urteak ziren eta. Andra Mariaren egunean bakoitza bere herrira joaten zen sotana jantzita eta "eskea" egiten zen. Babarruna biltzen zuten batez ere eta hari esker jaten zuten. Egunero babarruna.

13. Donostiako seminarioan greba egin zutenekoa

- **Erref:** ZUM-105/014
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:24:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Donostiako seminarioan gosea pasatzen zuten. Gurasoek, bisitan zetozenean, jatekoa ekartzen zieten. Behin greba egitea erabaki zuten eta afaldu gabe kalera irten ziren. Apaizgaiek greba egin zutela-eta albistea zabaldu zen. Eurak apaiz egiteko zeuden orduantxe.

14. Franco Donostiako seminarioaren inaugurazioan

- **Erref:** ZUM-105/016
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:25:34. **Bukatu:** 00:27:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

1953an ireki zen Donostiako seminarioa eta Franco etorri zen inauguraziora. Seminarioa frankismoak "kutsatua" zegoela dio. Gero ondorioak ere halakoak izan omen zituen. Aita santuaren ordezkioak apaiztu zituen eurak eta hura ere zeharo frankista ei zen.

15. Hogeta hiru urterekin Gaintzara apaiz

- **Erref:** ZUM-105/017
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:27:16. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Filosofia eta teologia ikasi zituzten seminarioan. Apaiztu zenean, 23 urterekin, Gaintzara bidali zuen obispoak. Apaiz-etxe dotorea zuten. Hamabost urteko ahizpa eta biak joan ziren. Bost urte egin zituzten han. Bera esperientziarik gabea zen, baina herritarrentzat bera, berriz, pertsona inportantea, apaiz izateagatik bakarrik.

16. Dantza lotua bai/ez arazo gogorra Gaintzan

- **Erref:** ZUM-105/018
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Ondo konpontzen zen Gaintzako gazteekin, baina dantza lotua bai/ez arazo gogorra izaten zen. Bere aurretik Gaintzan zegoen apaizak Joanito herriko jaiak baino lehen joatea nahi izan zuen, berak gazteei dantza lotua debekatu egiten zuelako eta aurreko urteetan arazoak izan zituelako.

17. Zumaian bertako parrokiako ohiturei segi behar

- **Erref:** ZUM-105/022
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:40:00. **Bukatu:** 00:42:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

29 urterekin joan zen Zumaiara apaiz. Hiru-lau apaiz zituen bere aurretik eta parrokiako ohiturak ere oso zehaztuak zeuden. Berak ohitura haiek jarraitu besterik ez zuen; ez zeukan erabakirik hartzerik. Gazteen ardura eman zioten berari; luistarrak.

18. 60ko hamarkadako "leherketa" politikoa eta kulturala

- **Erref:** ZUM-105/023
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:42:05. **Bukatu:** 00:44:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

60ko hamarkada politikoki gogorra izan zen; tartean, ETAren sorrera. Donostiako seminarioa frankismoarekin "kutsatuta" egon zen bere sorreran, baina handik hamar urtera dena hustu eta beste muturrera jo omen zuen, ia ETAren "habia" bihurtuz. Orduko idealak: marxismoa, klase-borroka, langileen eskubideen defentsa, Euskal Herria askatzea, sozialismoa eta iraultza. Aldaketa garaia zen: bertsolaritza indartu, euskara batua sortu, ikastolak... Elizan Vaticano kontzilioak ere beste askatasun bat ekarri zuen.

19. `Eusko Gaztedi´ren sorrera; apaiz gazteen mugimendua

- **Erref:** ZUM-105/024
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:44:58. **Bukatu:** 00:47:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Espainia mailako "Juventud Acción católica rural" taldean ibiltzen ziren, baina Espainiarekin haustea erabaki zuten eta orduan `Eusko Gaztedi´sortu zuten. Apaiz gazte askoren mugimendua izan zen. Hortik, parrokia utzi eta fabrika lanean hastea etorri zen. Bera Torreaga fundizioan hasi zen lanean. Aldaketa handia izan zen. Giroak bultzatutako mugimenduak izan ziren. Bera `Eusko Gaztedi´ko lidertzat hartzen omen zuen askok, baina bat gehiago besterik ez zela dio.

20. Apaiz ugari atxilotuta; bera ozta-ozta libratu

- **Erref:** ZUM-105/025
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:47:24. **Bukatu:** 00:51:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

‘Eusko Gaztedi’ taldean apaiz talde bat elkartzen ziren eta eztabaidak ere izaten zituzten. Poliziak atzetik izan zituen Joanitok, baina ez zuen atxilotu. Gero jakin zuen obispoak ez zuela eman baimenik bera atxilotzeko. Jacinto Argaya obispoa. Elizaren indarra. Bilboko obispoak atxilotutako apaizen alde egin zuen eta Francok estatutik bidali egin nahi izan zuen.

21. Ikastolaren bitartez bertsoen mundura

- **Erref:** ZUM-105/026
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:51:15. **Bukatu:** 00:54:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Fabrian lanean zebilela, bihotzekoa eman zion. Ikastolen sorreran ibilia zen ordurako eta, lantegirako ez zenez gai, ikastolako zuzendariak hango administrazioan lana eskaini zion. Ordurako kanta erakusten ibiltzen zen ikastolan eta baita Bizkaiko ikastoletarako ‘Saioka’ izeneko testu-liburua idazten ere. Liburu horretan bertsoak eta poesiak sartzeari ekin zion. Bertso munduko bilera batzuetan parte hartu zuen eta, bere lana ikusirik, ikastoletan bertsoak erakutsi ahal izateko antologia bat egiteko eskatu zioten. Zabalak bertso asko zuen bilduta ordurako, baina berak jarraipena eman zion lan horri.

22. Gaintzan piztu zitzaion bertsotarako zaletasuna

- **Erref:** ZUM-105/027
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:54:35. **Bukatu:** 00:57:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Gaintzan eta inguruetan bertsotarako zaletasun handia zegoen eta bertan apaiz zegoela sortu zitzaion berari ere zaletasuna. San Migeletan bertso-saioa antolatzen zuten; ‘Basarri’, ‘Uztapide’ eta Lasarte izaten ziren bertsolari ohikoenak. Gazteak puntuka ere ibiltzen ziren tabernan eta euren arteko txapelketa ere antolatu zuten. Zumaian ere egiten zuten puntutan lagunartean eta txapelketak ere antolatu zituzten luistarretan.

23. ‘Bertsotan’, bi liburuki

- **Erref:** ZUM-105/029
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:58:37. **Bukatu:** 01:00:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Lau bat urte pasako zituela `Bertsotan´ liburua osatzen uste du. Eskuz idazten zuen dena, atal desberdinak kolore desberdinetako boligrafoekin bereiziz. Gero doinuak. Bi liburukitan argitaratu zen azkenean lana, Ikastolen Elkartean.

24. Bertso-doinuen sailkapena egiten buru-belarri

- **Erref:** ZUM-105/030
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:00:50. **Bukatu:** 01:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Lehenengo `Bertsotan´ liburua prestatzen ari zela ohartu zen bertso-doinuak sailkatzea ere interesgarria litzatekeela. Lehen liburukian dagoeneko 110 doinu sartu zituen, sailkatuta. Lan horretan jardun du ordutik.

25. Bertsolaritzaren inguruko mugimenduak 1981 inguruan

- **Erref:** ZUM-105/032
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:02:20. **Bukatu:** 01:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

1981 inguruan `Bertsotan´ liburuak kaleratu ostean beste mugimendu batzuk etorri ziren: eskola arteko txapelketak, irakasleentzat `Bertsotan´ liburuaren gida bat prestatzea, irakasleentzat ikastaroak... Gipuzkoako Foru Aldundian bertsolari bat liberatzeko ere eskatu zuten. Zumaiako bertso-eskola giro horretan sortu zen.

26. Eskola arteko txapelketen hasiera

- **Erref:** ZUM-105/034
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:04:25. **Bukatu:** 01:07:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Eskola-arteko txapelketen hasiera. Arrasatekoek piztu omen zuten "txispa"; Patxi Goikolea zebilen han. Santutxun, berriz, Jose Ramon Etxeberria zebilen, baina han eskoletan sartu gabe oraindik. Gipuzkoan Mikel Mendizabal bertsolaria liberatu zuten. Nortzuk ibili ziren hasierako mugimendu horretan. Hasierako txapelketetako epaimahaia nortzuk osatzen zuten. Ikastolen barruan sortu zen hasierako mugimendu hori; bertso-eskolak gerora sortu ziren.

27. Umeei bertsoak irakasteko ideia nondik sortu zen

- **Erref:** ZUM-105/036
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:10:00. **Bukatu:** 01:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Berak ikastolako lan-orduen barnean ematen zizkien bertso-eskolak umeei, baina hori ez zen ohikoena. Normalean eskolaz kanpoko orduetan izaten ziren. Eskoletan larunbat goizak jai egiten hasi zirenean sortu omen zitzaien umeei bertso-eskolak emateko ideia Arrasateko Almen ikastetxeko zenbait kideri.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com